

## AEZKOAKO KULTUR OLA AEZKOAKO ONDARE MATERIALA ETA EZ-MATERIALA



### ZER DA AEZKOAKO KULTUR OLA?

Aezkoako Kultur Ola Aezkoako Batzarre Nagusiak eginiko erakusketa zentroa da, gure ibarra, kultura eta historia ezagutzera emateko, bideoen, maketen, liburuen, panelen eta erakusketen bidez. Etorri ikustera, eta gozatu horretaz guztiaz. Gustatuko zaizu.




## ZER AURKITUKO DUZU?

### **- Lehenengo solairua:**

Sarrerak erosteko lekua dago. Gure langileek artatu eta eraikinaren bisitan gidatuko zaituzte.



Solairu berean, lehenengo aretoa ikusi ahal izango duzu. Iratiko oihanaren gainean bidaiatuko duzu gure bideoaren bidez, zeinak erreken, zuhaitzen, lainoaren eta abarren irudi ikusgarriak eskaintzen dituen. Era berean, gure flora, fauna, ohiturak, tradizioak eta herriak ezagutzeko lehen topaketa da. Horretaz gain, lau pertsonaia ezagutuko dituzu, ibarreko historiari eta jardueri buruz mintzo direnak.





**- Bigarren solairua**

- Munizio Olaren funtzionamenduan murgilduko zara, hiru mende atzerago joanez, 1784a arte. Burdinolare eta haren makinariaren berregitea ikus daiteke hainbat paneletan, zeinetan lantegiari buruzko azalpenak ere ematen diren. (Gogoratu gunean bertan aurriak ikusteko bisita gidatua hitzartu dezakezula, informazioa zabalteko).



- Etxe aetza: ezin duzu galdu gure ibarreko bizilagun batek egindako maketa ederra. Ez zaio xehetasunik falta, ohiko etxe aetza gisa identifikatzeko.



- Ikusgai daude ere antzinako eguneroko bizitzako tresnak eta munizio olako zenbait aztarna (ponpak, lingoteak, teilak eta zepa).

- Solairu horretan ere zura da protagonista: baso ustiapena - basoko lanetik hasita eta zerrategira iristen zen arte-, erremintak, jantziak, txabola, oholak... Maketa batzuek lagunduko dizute prozesu osoa jarraitzen. Harrituko zaitu duela zenbait urte lehenago zuten lan egiteko erak.



## -Hirugarren solairua


Emigrazioa: XX. mendean zehar, haran hauetatik Ameriketara migratu zuen jende askok, anitzek egiten duten moduan, bizi baldintzak hobetzeko aukeren bila. Joandako ugari geratu ziren erbestean, eta beste batzuk itzuli; azken horiek, bizipen horien protagonistak, lehen pertsonan kontatzen dituzte beren istorioak. Ikusiko duzu nola bizi ziren, nola jantzen ziren, bidaiak, lan-baldintzak... Ez galdu, dokumentu zoragarria da.



---

## **NON DAGO**

Orbaizetako Munizio Olako jauregi zaharrear dago, Aribetik (Aezkoa bailararen erdigunea) 11 km-ra. Ariben, NA 2030 errepidea hartu behar da, Orbaizetarako noranzkoan. Herri hori igaro eta 3 bat km-ra bidegurutze bat dago: ezkerrera hartuta, Munizio Olaraino iristen da(1,5 km); eskuinera, aldiz, Arrazolako informazio gunera eta Irabiako Urtegiraino.



## ORDUTEGIA

Aezkoako Kultur Ola zabalik dago Aste Santuan, maiatzeko eta ekaineko asteburuetan eta uztailaren 1etik azaroaren 10era arte. Azaroko gainerako asteburuetan eta abenduko zubian (3tik 10era: kontsultatu) ere irekitzen da.

Asteartetik ostegunera eta igandeetan: 10:00etatik 17:00etara  
Ostiral eta larunbatetan: 10:00etatik 19:00etara  
Astelehenetan itxita dago.

## SARRERAK

Erakusketa zentro ikus dezakezu, Munizio Olako hondakinetara bisita gidatua egin dezakezu edo biak konbinatu. Hauek dira gure prezioak:

AEZKOAKO KULTUR OLA	Data Fecha	
	Sarrera Entrada	Beherapenarekin con descuento
OROKORRA GENERAL	4,00 €	3,00 €
BISITALDI GIDATUA FABRIKARA VISITA GUIADA FABRICA	6,00 €	5,00 €
OROKORRA BATERATUA GENERAL CONJUNTA	8,00 €	7,00 €
TALDEAK (15 PERTSONA GUTXIENEZ) GRUPOS (MINIMO 15 PERSONAS)	2,00 €	
TALDEAK BISITALDIA GIDATUA FABRIKARA GRUPOS VISITA GUIADA FABRICA	4,00 €	
TALDEAK BISITALDIA BATERATUA GRUPOS VISITA CONJUNTA	6,00 €	
IKASLE TALDEAK GRUPOS ESCOLARES	1,00 €	
* 10 URTE BAINO GAZTEAGOAK MENORES DE 10 AÑOS	Doan   Gratuito	

AEZKOAKO KULTUR OLA	Data Fecha	
	Sarrera Entrada	Beherapenarekin con descuento
OROKORRA GENERAL	4,00 €	3,00 €
BISITALDI GIDATUA FABRIKARA VISITA GUIADA FABRICA	6,00 €	5,00 €
OROKORRA BATERATUA GENERAL CONJUNTA	8,00 €	7,00 €
TALDEAK (15 PERTSONA GUTXIENEZ) GRUPOS (MINIMO 15 PERSONAS)	2,00 €	
TALDEAK BISITALDIA GIDATUA FABRIKARA GRUPOS VISITA GUIADA FABRICA	4,00 €	
TALDEAK BISITALDIA BATERATUA GRUPOS VISITA CONJUNTA	6,00 €	
IKASLE TALDEAK GRUPOS ESCOLARES	1,00 €	
* 10 URTE BAINO GAZTEAGOAK MENORES DE 10 AÑOS	Doan   Gratuito	



TALDEAK (gutxienez 15 pertsona); sarrera orokor bateratua (erakusketa zentroa eta aurrietako bisita gidatua): 6,00 €/ pertsonako.

Munizio Olako aurriak ikusteko bisitak larunbatetan egiten dira; baina taldean bazatoz eta beste data batzuk eskatu nahi badituzu, jar zaitez gurekin harremanetan.

---

### NI HEMEN, ZURE ZAIN

---

Zure maskota ekar dezakezu, baina prestatu diogun leku batean itxaron behar dizu. Mantatxo bat eta ura izango du, gustura egon dadin.



---

### GOGORATU: LEKU IRISGARRIA DA

---

Eskailerak igo ezin badituzu –edo igo nahi ez badituzu-, zatoz eraikinaren atzealdetik, igogailurako sarbide zuzena aurkituko baituzu. Lehenengo solairuan gelditu beharko duzu, eta, sarrera erosi ondoren, eraikinaren gainerakoraino iritsi ahal izango zara.

## GURE JARDUEREN BERRI JASO NAHI DUZU?

---

Antolatzen ditugun jardueren berri izan nahi baduzu, sare sozialen bidez jarrai gaitzakezu: facebook, twitter eta instagram:

**@aezkoakokulturola**

## HARREMANETARAKO

---

Posta elektronikoa: aezkoakokulturola@gmail.com

Telefonoa: 848 680 534

WEB: VALLEDEAEZKOA.COM (QR)



2024. urtean Aezkoako Batzarre Nagusiak Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza jaso du Aezkoako Kultur Ola gunea kudeatzeko

ACTUACIÓN SUBVENCIONADA POR:

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LAGUNDUTAKO JARDUERA

Reyno de **Navarra**  **Nafarroa**<sub>ko</sub>  
Erresuma